



Esp. kodea: 2018YHIT0002
Titularra: IBAI-ARTE ELKARTEA

Gaia: Ibai-arte lankidetzaren 2018
Hasiera data: 2018/05/17

Hitzarmena

ARRASATEKO UDALA ETA IBAI-ARTE MERKATARIEN ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, 2018KO EKITALDIAN HIRI MERKATARITZA JARDUERA SUSPERTZEKO.

Maria Ubarretxena Cid andrea, Arrasateko Udaleko alkatea, Udalaren izenean eta Udala ordezkatur.

Jon Apraiz Ansola jauna, Arrasateko Ibai-arte Merkatarien Elkartearen lehendakaria, erakunde horren izenean eta erakundearen ordezkatur.

Batak besteari hitzarmen hau izenpetzeko gaitasuna duela aitortuz, eta kontutan edukita ondoko

AURREKARIAK

- 2016ko datuen arabera, Arrasate 21.933 biztanleko udalerria da eta txikizkako merkataritzako 295 establezimendu ditu (**EUSTATE**ko datuak). Datu hauen arabera, Arrasateko merkataritza-ekipamenduren sektoreko garrantzia espezifikoa honakoa hau da:
 - Elikadura: %28,87.
 - Jantziak eta oinetakoak: %23,37.
 - Altzariak eta etxeko artikuluak: %16,15.
 - Drogeriak, lurrindegia eta farmaziak: %8,25.
 - Bestelako merkataritza: %23,37.

Guzti honekin ikusten dugu Arrasaten noizbehinkako kontsumo-ondasunen salmentak %62,89ko pisu espezifikoa duela, eta eguneroko kontsumo-ondasunen salmentak aldiz, Arrasateko merkataritzaren %37,11 suposatzen duela. Merkataritza-dentsitateari dagokionez, Arrasateko dentsitatea Euskal Autonomia Erkidegoko batz besteko dentsitatearen antzekoa dela esan daiteke (13,45 establezimendu/1000 biztanleko). Datu guzti hauek kontuan hartuta eta eskualdeko beste udalerrietako datuekin alderatuz gero, Arrasate Debagoieneko ekonomia eta merkataritza arloko erreferentzia gunez har daiteke.

2016an “**Arrasateko Hiri ekonomia Plan Estrategikoa**” landu zen eta dokumentu honetan adierazten diren datuen arabera (EUSTATEko datuetan oinarrituta), merkataritza gastuaren beherakada eragin duen arrazoi nagusiak dira: krisi ekonomikoa eta kontsumo ohituren aldaketa, internet bidezko erosketak hain zuzen ere. Gastu-portaera ere desberdina da merkataritza produktuen arabera. Eguneroko kontsumo-ondasunak (elikagaiak, drogeria, etxeko gauzak...) gutxiago atxikitzen dira hirigunean. Halere, ihesa «herrian bertan» gelditzen da, hau da, kanpoaldeko merkataritza-guneetan. Ekipamendu pertsonalean ere, ihes handia dago, baina kasu horretan gastuaren helmuga herritik kanpo eta internet bidezko erosketetan dago, hein handi batean. Ostalaritzak eta jatetxeek hobeto eusten diote ihesari eta, zalantzarik gabe, hurbileko zerbitzuek (ile-apaindegia, edertasuna, osasuna eta abar) laguntzen dute gaur egun gehien merkataritza-portaera hirigunean bertan eusten.



Esp. kodea: 2018YHIT0002
Titularra: IBAI-ARTE ELKARTEA

Gaia: Ibai-arte lankidetzaz 2018
Hasiera data: 2018/05/17

PERCO 2010 azterketaren arabera, eta arestian aipaturiko Hiri Ekonomiaren Planak berresten duen bezala, Arrasateko txikizkako merkataritzako zenbait sektorek **gastu-ihes nabarmena** jasaten dute; besteak beste, Pertsonentzako Ekipamenduan (jantziak, oinetakoak eta osagarriak) gastu-ihesa % 52,7koa da eta Etxerako Ekipamenduan aldiz (etxetresna elektrikoak, elektronika, irudia, altzariak, dekorazioa...) % 63,50koa da.

Gastu-ihes horien kausak, oro har, eragile hauen ondorio izan daitezke:

- Beste merkataritza-guneetako eskaintza zabalagoa: aintzat hartu behar dira, esaterako, Gasteiz eta Eibar, zeintzuetan establezimendu-pilaketa handia baitago.
- Kontsumo-ohituren aldaketak
- Komunikazio-bideen hobekuntzak
- Merkataritza-egitura berrien sorrera

Faktore guzti hauekin, lehiakortasun-maila gora doa, eta gero eta ohikoagoa da merkatu potentzial beragatik hainbat merkataritza-gunetako eskaintzak lehian aritzea (hiriguneko dendak, saltoki-guneak, azalera ertaineko denda espezialistak...).

2. Arrasateko Udalak berea du hiriguneko merkataritza sektorea indartzeko eginkizuna, eta bere sail desberdinen bidez gauzatzen du betebeharrak.
3. Ibai-artek 2018ko ekitaldirako, 2017ko Merkataritza Dinamizazioa Programaren bidez, merkataritza teknikari baten laguntza du, sektorea suspertzeko ekimenak antolatuz.
4. Ibai-artek Udalarik 2018ko maiatzaren 17an, 2018ko ekintza plana aurkeztu dio, ondoko ekimen zehatzak eta ekitaldian zehar suertatu daitezkeen beste batzuk burutzeko:
 - Merke-merkaia
 - Merkataritza Berdearen Astea
 - Gabonetako kanpaina
 - Arrasate Txartela
 - Martxoak 8a
 - Web orria
 - Asegurua
 - Pertsona baten kontratua
 - Euskal komertzioaren astea
 - Arrasate irekia
 - Selfien lehiaketa
 - Komunikabideak
 - Debagoieneko ekimenak (Goiena-Mankomunitatea-Elkartek)
 - Black Friday
 - Laubide Parkinga
 - Prestakuntza
 - Beste batzuk



Esp. kodea: 2018YHIT0002
Titularra: IBAI-ARTE ELKARTEA

Gaia: Ibai-arte lankidetza 2018
Hasiera data: 2018/05/17

- Merkataritza Dinamizatzeko Bulegoa
5. 2018ko maiatzaren 31an Arrasateko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zuen Ibai-arteri lankidetza eskaintzea 2018rako ekintza plana burutzeko.
 6. 2018ko Udalaren aurrekontuetan izendatuta dago kontu sail bat hiri merkataritza suspertzeko (Ibai-arterako ekarpena - merkataritza sustapena”), 31.000 eurokoa.
 7. Arrasateko Udalak, euskararen normalizazioan merkataritza sektore estrategikoa dela ohartuta, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu guztiak euskaraz ere emango direla bermatze aldera, Merkataritzan Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana du, Ibai-arte Merkatarien Elkartearekin elkarlanean 2018ko Merkataritza Sustatzeko Ekintza Plana burutzeko lankidetza honetan konpromiso batzuk jasotzea eskatzen duena.

Azaldutako guztiagatik, erakunde biek

HITZARTZEN DUTE:

1. Arrasateko Udalak gehienez 31.000€ arteko ekarpena egingo dio Ibai-arteri 2018ko ekintza plana burutu dezan. Arrasateko Udalaren diru ekarpenak ez du inoiz suposatuko ekintza bakoitzaren kostearen %25a baino gehiago.
2. Arrasateko Udalaren diru ekarpena era honetara ordainduko da:
 - Ekarpeneren %50a hitzarmen hau sinatutakoan.
 - Ekarpeneren gainontzeko %50a, edo likidaziotik ondorioztatzen den gainontzeko kopurua, urte amaieran eta ekintza guztiak jasoko dituen exekuzio memoria eta likidazio ekonomikoa aurkeztuta eta Udalaren Toki Garapen Sailak onarpena emandakoan.
 - Likidazio ekonomikoa era honetara justifikatuko da:
 - Gastu bakoitzaren fakturaren kopia.
Gastuaren izaeragatik fakturarik ezin denean aurkeztu, salbuespen moduan onartuko dira:
 - Gastuaren ordainagiriak, Ibai-arte Merkatarien Elkartearen zigiluarekin, eta hartzailearen sinadurarekin. Elkarteak banatutako sariak ere era horretan justifikatuko dira.
 - Deskontuak eta antzekoak Arrasate txartelaren bidez burututakoak badira, txartela kudeatzen duen entitatearen zigilua daraman agiria aurkeztuko da, bertan era horretako mugimendu guztiak identifikatuta, egitasmoka bereizita.
 - Elkartearen diru sarreraren azalpenak eta horren egiaztagiriak:
 - Diru laguntzen ebazpena edo ordainketaren agiriak
 - Bazkideen kuoten ordainagiriak
 - Beste diru sarrerarik balego, horren justifikazio dokumentala.



Esp. kodea: 2018YHIT0002
Titularra: IBAI-ARTE ELKARTEA

Gaia: Ibai-arte lankidetza 2018
Hasiera data: 2018/05/17

3. Ibai-artek konpromisoa hartzen du 2018ko ekintza planeko ekimen guztiak burutzeko. Ekintza plan horretan jasotzen ez den ekimen berriren bat sortuz gero, Ibai-artek udalari azalduko dio hori burutu baino lehen. Era berean, 2018ko ekintza planak jasotzen dituen ekimenen bat burutuko ez balitz, aldaketa hori azalduko duen txostena aurkeztuko dio Ibai-artek udalari.
4. Hizkuntza normalkuntzari dagokionez, Ibai-artek konpromisoa hartzen du hiri merkataritza suspertzeko 2018ko ekintza plana burutzearekin lotutako mezu idatziak eta jendaurreko ekitaldiak euskaraz edo elebitan egiteko. Elebitan denean, euskarari lehentasuna emango zaio era nabarmenean. Udalak, bere aldetik, mezuen hizkuntza zuzentasuna bermatzeko Udaleko Euskara Sailaren aholkularitza zerbitzua Ibai-arteren esku jarriko du.

Arrasaten, 2018ko maiatzaren 31n

Arrasateko Udala

Ibai-arte Merkatarien Elkartea